

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Igo egin da gripearen intzidentzia, azken astean 1.134 kasu izan baitira

Indize altuenak Iruñerrian erregistratu dira, baina ez dago alde nabarmenik Nafarroako gainerakoarekin

Asteartea, 2018.eko urtarrilak 2

Urteko azken asteen, nabarmen igo dira gripe-kasuak Nafarroan, eta mila kasu berri baino gehiago diagnostikatu dira: zehazki, 1.134, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren (ISPLN) datuen arabera.

Zifra horien argitan, goranzko joera duen gripe-jarduera epidemikoa ikusten da, eta B motako birusaren zirkulazioa gailendu dela.

Gaixotasunaren intzidentziak gora egin du adin-talde guztietan, bereziki haurretan eta heldu gazteetan.

Une honetan, 181 kasu daude 100.000 biztanleko. Eremuka, indizerik altuena Iruñerrian erregistratu da (197 kasu), baina Nafarroako gainerako eremuekiko aldea ez da handia.

Joan den asteko 413 kasuekin, 1.547 gripe-kasu baieztatu dira.

Joan den asteen, 66 kasu erregistratu ziren 100.000 biztanleko; aste honetan, berriz, 181.

Gainera, aste honetan, ospitaleratutako 21 pazientetan baieztatu da gripe-diagnostikoa; denboraldi honetan, guztira, 36.

Haietako bi ZIUra eraman behar izan ziren. Ospitaleratutako 30 pazientetan, B motako gripea baieztatu zen, eta beste seiengan, A gripea (H3N2).

Kutsatzea prebenitzea eta telefono bidezko kontsulta

Kutsatzea prebenitzeko, gomendatzen da, txertoa jartzeaz gain, arnas sintomak dituztenekiko kontaktua saihestea, eta oinarrizko higiene-neurriak hartzea (doministiku egitean besoa jartzea, eskuak maiz garbitzea...); eta, hori ezin bada, gripea harrapatzeko arriskurik ez hartzea.

Infektatutako pertsonak eta haren ingurukoek maskara kirurgikoa erabiltzen badute, murriztu egin daiteke kutsatze-arriskua. Arnas infekzioaren sintomak dituztenek, ahal duten neurrian, ez dute osasun-zentroetara edo egoitzetara



Txertoa gripearen aurkako tresna eraginkorra da.

joan behar.

Gogorarazi behar da Osasun Departamentuak arreta-zerbitzua ematen duela 948 290 290 eta 848 42 78 88 telefono-zenbakietan osasun-zentroen ohiko ordutegitik kanpo. Zerbitzu horretan, erizain espezializatuak informazioa ematen diete herritarrei osasun-arazo ohikoenei aurre egiteko modurik onenari buruz, eta norberaren gaixotasunari edo tratamenduari buruzko zalantza ohikoenei erantzuten diete.

Paziente kroniko deskompentsatuen segimendua egiteaz eta haiek kontrolatzeaz ere arduratzen da.

Lanegun guztietan jarduten du 14:30 eta 21:30 bitartean, eta, asteburuetan, 08:00etatik 22:00etara, 948 290 290 eta 848 42 78 88 telefono-zenbakietan, eta enfconsue@navarra.es helbide elektronikoan.

Osasun-arreta eraginkorra eta berehalakoa ematen du zerbitzuak, batez ere urte-garai zehatzetan, hala nola oraingo gripe-denboraldian, eta gastroenteritis eta antzeko gaixotasunak gertatzean, aukera ematen baitu arreta etxean bertan emateko eta arreta arazoa konpontzeko zerbitzurik egokienera bideratzeko, larrialdi-zerbitzuak ez daitezen alferrik lekualdatu eta berandu iritsi.